

Euskal Herriko Koop57 sortu dute

Erakunde berriak finantza tresna giltzarria izan nahi du kooperatiba sareetan, maileguak emateko eta jasotzeko garaian bestelako filosofia batean oinarrituta.

| URKO APAOLAZA AVILA |

OSOTASUNEZ ekin dio Euskal Herriko Koop57k bere ibilbidea-ri, Kataluniako Coop57ko kontseilu errektoreak erakunde gisa onartu baitu, ekainaren 20an Ondarroan egindako ekitaldian.

Bezperan Coop57k beste lurraldeetan dituen 40 bat ordezkariaren arteko topaketa izan zen. Hain justu, egun horretan 20 urte bete zituen Kataluniako Coop57k, 1995ean Bruguera argitaletxetik kaleratutako langileek ekimenez sortua. Horrek guztiak esangura berezia eman zion Ondarroako topaketari.

Bi urte lanean

Euskal Herriko Koop57ko kideek bi urte daramatzate lanean finantza tresna alternatiboa bat izateko egitasmoa aurrera ateratzen. Orain arte, mailegu eskaerak jaso, datuak bildu eta horiek kudeatzen zituzten, baina Kataluniako Coop57ko organoen onespena behar izaten zuten.

Gaurtik aurrera Euskal Herriko erakundeak bere batzorde soziala eta teknikoa izango ditu, bideragarritasun planak egin eta erabakiak autonomia osoz hartzeko. Liher Gonzalez Koop57ko kideak ARGIAri azaldu dionez, Kataluniako erakundea plataforma egokia izan da “batez ere denbora aurrezteko”. Normalean urte askoko lana izan behar lukeena, urte eta erdian egin ahal izan dute, jadanik gorpuztuta dagoen Kataluniako proiektuan oinarrituta.

“Kataluniako Coop57ren boka- zioa ez da inoiz izan herrialde hartatik kanpora irtetea, ezagutzen ez duten eremua baita –dio Gonzalez- zek-. Iniziatibak tokian tokiko eragi- leen esku egon behar du”.



Koop57k oraingoz 15 zerbitzu bazkide ditu eta 50 bazkide laguntzaile. Hainbat proiekturi 700.000 euro mailegatu dizkie eta bazkide laguntzaileek 200.000 euro aurreztu dituzte.

Zein helburu ditu?

Finantza kooperatibako kideak gelditu gabe ari dira lanean euren proiektua azaltzen: “Gauza konplexua da, filosofia aldaketa handia dakar eta jende askori kostatzen zaio ulertzea” dio Gonzalezek. Baina helburuak oso garbi dituzte: kooperatiba sareetan finantza tresna giltzarria izan nahi dute.

Esparru horretatik haragoko eragileekin ere ari dira elkarlanean. Hala, berrikitan Udalbiltzarekin hitzarmena sinatu dute, udalerrietan energia berriztagarrien inguruko proiektuak martxan jartzeko. Zerbitzu publikoari izaera kooperatibo eta komunitarioa ematea da horren gakoa: gestioa publikoa izango da, baina kontrola komunitatearen gain egongo da.

Nola funtzionatzen du?

Koop57 “instrumentu parabankarioa” da Gonzalezek hitzetan. Ez

du Fiare banku etikoaren moduan banku-fitxarekin operatzen, ez dauka aukerarik kutxazainak eta bestelako finantza produktuak edukitzeko, baina aldi berean ez ditu Espainiako Bankuak ezarritako araudi eta interes-tipoak kon- tuan eduki behar.

Batetik, bazkide laguntzaileak ditu, aurrezten duten pertsonak. Urtero, asanbladan adostutako zenbateko bat jaso dezakete horren truke. Bestetik, zerbitzu bazkideak daude, haiek aurreztu dezakete, baina maileguak jaso ere bai; kooperatibak, GKEak eta halakoak izan ohi dira. Dena den, ez dira soilik eragile kolektiboak finantzatzeko, autonomo- en beharrak ere kontuan eduki- tzen dira helburu soziala badute: “Zergatik ez lagundu kontsumo talde bat hornitzen duen baserritarrak?”.

Mailegua ematen da, ez abalatzen duenaren aberastasunaren arabera, abal mankomunatu pertsonalen bidez baizik. “Demagun 50.000 euroko mailegua behar duzula; 1.000 euro abalatzeko prest dauden 50 pertsona beharko zenituzke”, dio Koop57ko kideak. Hala, mailegua eskatzen duen horrek, hasi aurretik jada baditu babesleak proiektuan sinetsi eta hori zabaltzeko prest daudenak.

Mailegua ordaindu ezin den kasuetan, ordura arte amortizatutakoa deskontatzen da eta abalatzen dutenek gainerakoa ordaindu beharko lukete, baina interesik eta halakorik gabe. “Arriskua txikiagoa da eta ez duzu egon behar pentsatzen zure amaren edo aitonaren etxea kenduko dizutela”. ■